

#### IV. eranskina ERABAKIA, 2021eko MAIATZAREN 21ekoa

### **SGIKerreko goi mailako teknikaria. (Materialen eta Gainazalen Mikroskopia) 1. taldea.**

Kategoria profesionala: SGIKerreko Goi mailako Teknikaria.

Espezialitatea: Materialen eta Gainazalen Mikroskopia.

#### **PROZESUAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

##### **I. eranskinaren b) atala, 2.1 puntua:**

Doktoregoa eta, baita ere, gradu edo lizentziatura hauetakoren bat: zientziak, osasun zientziak edo ingenieritza.

#### **MEREZIMENDU LEHIAKETA**

##### **I. eranskinaren A) atala, 6.2.2 puntua.**

Poltsan sartzeko eskatzen direnez bestelako titulazio akademiko ofizialak baloratuko dira, baremo honen arabera:

- Doktoregoa: 6 puntu, Material eta Gainazalen Mikroskopiako espezialitatearekin loturarik badu; 2 puntu, loturarik ez badu.
- Gradua, lizentziatura, goi mailako ingeniariitza edo goi mailako arkitektura: 4 puntu, Material eta Gainazalen Mikroskopiako espezialitatearekin loturarik badu; 2 puntu, loturarik ez badu.
- Unibertsitate, ikastegi eta Tituluaren Erregistroan (RUCT) erregistratutako unibertsitate master ofiziala: 3 puntu Material eta Gainazalen Mikroskopiako espezialitatearekin loturarik badu; 1 puntu, loturarik ez badu.
- Unibertsitate bateko graduondoko berezko titulua, gutxienez 450 ordukoa edo gutxienezko iraupen hori bermatzen duen kreditu kopuru duena. 2 puntu bakoitzeko, Material eta Gainazalen Mikroskopiako espezialitatearekin loturarik badu; 1 puntu, loturarik ez badu.